

BIZIA ETA HERIOTZA BETI BURRUKAN GUGAN

Doinua: "Ikusten dozu"

1

Gaur zapatu zantua,
eta betiko kontua:
noraezean mundua.
Baina, anaiok, poztu zaiteze
Amaitu jaku lantua.
Hasi da kantuz kukua:
Jesus dala gaur biztua,
zabalik dogu zerua

2

Ereiten dana batu nahi
erein ez dana ere bai...
onak hartzeko prest noiznahi.
Ikutzen eta gozatzen ez dan
mundu barri baten jarrai;
hortxe bizi behar ernai
gerora begira alai;
orduan izango da jai.

3

Etenbako nekelorra
ta beti gainean zorra
hori bai dala gogorra!
Mila iturri dastatu eta
bata zein beste agorra;
kristau iturria horra,
gozoa ta emonkorra:
Biztu dan Kristo altxorra.

4

"Jaunaka" gora begira
edo puzka jirabira,
zer hileta-kanpai dira?
Otoitz eta lan diharduenak
ezin dira erretira.
itxaropenez disdira,
atxaki danak azpira;
holako asko balira!!!

5

Egunak joan-etorri
hemen dogu udabarri
Pazko egun zoragarri.
Anaitasuna ta bizipoza
opa deiogun alkarri.
Gose izan nahiz egarri
Kristo dogu asegarri;
goazen Beragana sarri

6

Jesusek opa deuskunez
izan bake osasunez
eta zoriontasunez.
Jaunak bedeinka gaizala danok
beti deuskun maitasunez.
Esan daigun poztasunez
alkarri esku emonez:
ZORIONAK PAZKO EGUNEZ!

A. Martzel